

EUSKO JAURLARITZAREN BALORAZIOA (2015eko otsaila) Prensa oharra

Euskal herritarrek egoera politikoaren balorazio ona egiten dute

Herritarren laurdenek (%25) diote Euskal Autonomia Erkidegoko egoera politikoa ona edo oso ona dela eta erdiek (%50) erdipurdikoa dela. Espainiako Estatuan herritarren %2k bakarrik diote egoera politikoa ona edo oso ona dela, %16k erdipurdikotzat jotzen dute eta %79k txarra edo oso txarra dela diote.

Herritarrek Eusko Jaurlaritzaren lehentasunak babesten dituzte

Euskal herritarrek oso garrantzitsutzat jotzen dituzte Euskadirentzat Eusko Jaurlaritzaren jardueraren ardatzak: Ekonomiaren Berrindartzea (8,5eko garrantzia 0tik 10erako eskalan), Bakea eta Bizikidetzak (8,4) eta Estatus Politiko Berria (6,8). Eusko Jaurlaritza hiru ardatz horietan egiten ari denaren balorazioa 5,5, 6,3 eta 5,4koa da hurrenez hurren.

Gehiengoak, %54k, uste du Eusko Jaurlaritzak asko edo nahikoa ezagutzen dituela herritarren beharrak; hala ere, badirudi oraindik ez dela bere ekimenak nahikoa azaltzen ari (%58).

Gobernuak oniritzia jaso du

Oro har, Eusko Jaurlaritzaren jarduerak 10en gaineko 5,7 puntuko balorazioa jaso du. Eusko Jaurlaritzak herritar gehienek esperotakoari erantzunez jarraitzen du, %65ek diote espero zuen bezala ari dela.

EAEko biztanleriak oniritzia eman die Eusko Jaurlaritzaren gestiorako gaitasun eta ezaugarriari: Zintzotasuna (5,9, 0tik 10erako eskalan), gestiorako gaitasuna (5,8), Euskadirako etorkizuneko egitasmo baten lidergoa izateko gaitasuna (5,5), akordioak lortzeko gaitasuna (5,3) eta herritarren arazoekiko hurbiltasuna (5,0).

Euskadiko arazoak konpontzeko Eusko Jaurlaritzak duen gaitasunari buruz galdetuta, herritarren %10ek uste dute arazoak konpontzen ari dela, %48k uste dute Eusko Jaurlaritzak badakiela zer egin behar duen baina denbora gehiago behar duela, eta %32k Eusko Jaurlaritzak ez dakiela Euskadiko arazoak nola konpondu.

Josu Erkoreka eta Juan Maria Aburto dira herritarrek gehien ezagutzen dituzten sailburuak (%76k eta %51k ezagutzen dituzte hurrenez hurren). Herritarrek sailburuen balorazio ona egin dute; 5,6ren inguruko puntuazioak lortu dituzte.

Oposizioko alderdietatik batek ere ez du herritarren oniritzia lortu; EH BILDUrena da baloraziorik onena (4,7) eta ondoren PSE-EErena (3,7). Balorazio okerragoak jaso dituzte UPDk (2,5) eta PPK (2,0).

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.000 lagunek osatua da. Elkarriketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 3,16$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2015eko otsailaren 5a eta 6a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_sociologikoak

Vitoria-Gasteiz, 2015eko otsailak 25